

EUSKARA IKASTEAGATIKO LEMOAKO UDALEKO DIRU-LAGUNTZA ARAUDIA (2017-2018 ikasturtea)

HELBURUA

Araudi honen helburua da euskara ikasi edo euskaraz alfabetatzeko ikastaroak egin dituzten herritarrei diru-laguntzak ematea. Horrek eragindako ahalegin ekonomikoan laguntza eta babesa eskaintzea eta, neurri batean, berreskuratzeko bidea izan dezaten.

Honako ikastaroak diruz lagunduko ditu Lemoako Udalak:

- HABEk homologatutako edozein euskaltegiaren bitartez egindako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak.

Matrikula gastuak lagunduko ditu Lemoako Udalak. Ez zaie diru-laguntzarik emango euskaltegi publikoetan (Hizkuntza Eskola Ofizialetan, Udal Euskaltegietan) edota IRALE, HAEERen bidezko ikastaroak egin dituztenei. Horrela, bestelako egonaldi, ostatu, bidaia... gastuak diru-laguntza hauetatik kanpo geratuko dira.

BETEBEHARRAK

Udalak onartutako diru-laguntzak jasotzeko eskatzaileak ezinbestean betebeharreko baldintzak:

1. Ikastaroan zehar Lemoan erroldaturik egotea.
2. Lemoako udalerriarekin inolako diru-zorrik ez edukitzea.
3. Ikastaroaren aprobetxamendua egokia. Matrikula egiten den egunetik ikastaroa bukatu arte emaniko orduen % 80 edo gorako asistentzia izatea. Nahitaezko betebeharrengatik ez joatea edo gaixotasun-bajak erakunde eskudunak justifikatu beharko ditu.
4. Egindako ikastaro maila bererako hiru urtez jarraian diru-laguntza ez eskatu izana.

EMANGO DEN DIRU-LAGUNTZA

Diru-laguntzak asistentziaren eta ikastaro motaren arabera banatuko dira:

- Trinkotasun txikikoak, astean 10 ordura arteko ikastaroak

Asistentzia % 80 - % 90 (biak barne) bitartekoa bada, matrikularen % 85 ordainduko da.

Asistentzia % 91tik gorakoa bada, matrikularen % 90 ordainduko da.

Asistentzia % 100ekoa bada, matrikularen % 100 ordainduko da.

-Trinkotasun handikoak; barnetegiak eta ikastaro trinkoak

Ikastaro trinkoak, astean 10 ordutik gora. Asistentzia gutxienez % 80, diru-laguntza % 80.

Barnetegiak, 15 egun artekoak. Asistentzia % 100, diru-laguntza % 80.

Barnetegiak, 15 egunetik gorakoak. Asistentzia gutxienez % 90, diru-laguntza % 80.

-Autoikaskuntza ikastaroak

Asistentzia % 80 - % 90 (biak barne) bitartekoa bada, matrikularen % 85 ordainduko da.

Asistentzia % 91tik gorakoa bada, matrikularen % 90 ordainduko da.

Asistentzia % 100 bada, matrikularen % 100 ordainduko da.

-Bestelako ikastaroak . Besteak beste, C2 (4.maila)

Gutxieneko asistentzia % 90 bada, matrikularen % 50 ordainduko da, gehienez 120 €.

DIRU-LAGUNTZA BEREZIAK

Langabetuak edo baliabide ekonomiko nahikorik ez duten ikasleei, euskalduntze eta alfabetatzeko edozein mailatako ikastarotako matrikula kostua ikastaroa hastearekin aurreratuko zaie, baldin eta beka sisteman jasotako baldintzak beteko badituzte. Eskaera irailaren 1etik urriaren 15era egin beharko da, biak barne. Matrikula kostuaren % 85 ikasturtea hastearekin batera emango zaie, gainerako % 15a ikasturtea bukatzean emango zaie, bekaren ikasturteko baldintzak bete dituztela egiaztatu ondoren.

Ikastaroa hasi aurretik, besteak beste, aurkeztu beharreko dokumentuak:

- Langabetuek LANBIDE txartelaren fotokopia aurkeztu behar dute behar bezala zigilatuta eta eguneratuta.
- Oinarrizko Errenta edota Gizarte Larrialdiko Laguntzarik jasotzen duten eskatzaileek laguntza hori jasotzen dutela egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar dute.
- Beka sistemako baldintzak beteko dituenaren zinpeko aitortpena.
- Lemoako Udalak beharrezko baderitzo, beka eskatzaileak dokumentazio gehigarria aurkeztu beharko du eskatutako epe barruan.

Beka jasotako ikasturtean zehar eskatzaileak beka sistemako baldintzak beteko ez balitu, diru-laguntza bueltatu beharko du.

Nahiz eta langabezia egon, Lemoako Udalak beka ez ematea erabaki dezake eskatzaileak nahikoa baliabide ekonomiko dituela baloratuz gero. Aurreratutako diru-laguntza bereziek ezingo dute inoiz urte horretako diru-laguntza partidako erdia gainditu.

Diru-laguntzak ikasturte eta ikasle bakoitzeko ezin izango du inoiz 500 euro gainditu.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Euskalduntze 1. 2. 3. 4. eta alfabetatze ikastaroetako ikasleek:

Maila horietan ikasle diren guztiek izango dute honelako diru-laguntzen onuradun izateko eskubidea, lehen zehaztutako baldintzak betetzen dituztela ziurtatuz gero. Ikasleak Lemoako Udaleko Erregistro Orokorrean eskura daitezkeen inprimaki normalizatuen bitartez eskatu beharko du diru-laguntza honako agiri hauekin batera:

- o Nortasun-agiria.
- o Dagokion ikastarorako beste inongo erakundeetatik diru-laguntzarik jaso ez izatearen aitorten sinatua (*inprimakia Udalean eskuragarri*). Eta jaso badu, Lemoako Udalari jakinaraziko dio dagokion egiaztatgiriarekin. Gain finantzaketarik onartuko ez denez, eskatzaileak beste laguntzarik jaso badu, Lemoako Udalak diru-laguntza esleitzeko oinarri bezala matrikulazioaren eta jaso diren gainerako laguntzen zenbatekoa hartuko du kontuan.
- o Errolda egiaztatgiria.
- o Matrikula ordainaren egiaztatgiria.
- o Diru-sarrera egin nahi den bankuko libretaren lehen orrialdearen kopia.
- o Ikasketak burutu dituen euskaltegiak egindako egiaztatgiria, hurrengo zehaztasunekin:
 - a) emandako eskola orduak
 - b) egindako ikasmaila
 - c) ordutegia
 - d) iraupena
 - e) matrikularen zenbatekoa
 - f) aprobetxamendua eta asistentzia.

EBAZPENA

Eskaera jaso eta erantsitako agiriak aztertu eta gero, interesdunei jakinaraziko zaie legokeen erabakia bizitokira helaraziko zaien idatzizko jakinarazpenarenaren bitartez. Horretarako, dagokion kontu korrontean egingo zaio diru-sarrera hirurogei egunen buruan.

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea:

- **Irailaren 1etik urriaren 15era** bitartean.

DIRU-LAGUNTZETARAKO DIRU-PARTIDA

Araudi honen arabera jasoko diren eskaerei aurre egiteko, urtero Lemoako Udalak aurrekontuetako 33548107 partidako 3000€ erabiliko du. Diru-partida nahikoa ez balitz, eskari guztien artean hainbanatuko da.

AZKEN XEDAPENA

Araudi honen jatorrizkoa euskaraz dela kontuan izanik, hura hartuko da aintzat euskarazko eta gaztelaniazko bertsioen artean interpretazio-auzirik sortuz gero.